



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko martxoaren 4a

33. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—11-24/CCO-00005. “Zizur Nagusiko Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**11-24/CCO-00005. “Zizur Nagusiko Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

2024ko otsailaren 5ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Zizur Nagusiko Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Adieraztea Zizur Nagusiko Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publiko eta dirulaguntzei buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinarren gainean dagoela.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**AURKIBIDEA**

AURKIBIDEA .....	3
I. SARRERA .....	4
II. HELBURUA ETA NORAINOKOA .....	4
III. IRITZIA, SALBUESPENEKIN .....	4
IV. IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN.....	5
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK .....	5
VI. ZIZUR NAGUSIKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA .....	5
VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	6
VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK .....	6
1. GEHIGARRIA. ZIZUR NAGUSIKO UDALA .....	7
1.1 Informazio orokorra .....	7
1.2. Egindako jarduera .....	8
2. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	9
3. GEHIGARRIA. BETETZEAREN FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK .....	9
3.1. Langileak.....	9
3.2 Udalaren kontratazio publikoa.....	11
3.3. Transferentzia arruntetako eta kapital-transferentzietako gastuak.....	14
3.4 Next Generation funtsak.....	16
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK .....	17
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA	18

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legea beterik eta 2023ko bere jarduketa-programari jarraikiz, Zizur Nagusiko Udalari langileen, kontratazio publikoaren eta dirulaguntzen arloan 2022ko ekitaldian aplikatzekoa zaion legeria betetzearen inguruko fiskalizazioa egin du.

Landa-lana 2023ko urrian eta azaroan egin zuen auditoria-teknikariz eta auditore batez osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak Zizur Nagusiko Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, alegazioak aurkez zitzaizkion. Ezarritako epean alkateak alegazioak aurkeztu ditu, eta txosten honetan jaso dira, Ganbera honen erantzunarekin batera.

Zizur Nagusiko Udaleko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan honen prestaketarako eman duten laguntzarengatik.

Txosten honetako datu ekonomiko guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Emandako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitzaren biribiltzea, eta ez datu biribilduen batura.

## II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Gure lanaren helburua da iritzia ematea ea honako gai hauei dagokienez Zizur Nagusiko Udalak 2022ko ekitaldian zehar egindako jarduerak bat datozen, alderdi esanguratsu guztietan, aplikatzekoa den arau-esparruarekin:

- Langileria: alderdi orokorrak, nominen ordainsarien analisia eta enplegu publikoa egonkortzeko prozesuaren berrikuspena.
- Kontratazio publikoa: munta txikiko kontratazioa eta kontratuzko euskarri egokirik gabeko prestazioak.
- Zuzeneko emakidaren araubidezko dirulaguntzak.

Era berean, Udalak emandako datuen arabera, zenbatu egin ditugu Next Generation Funtsetatik jasotako dirulaguntzak eta horiei lotutako gastuak.

Fiskalizazioaren norainokoak barne hartzen ditu txosten honen 3. gehigarrian aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketak.

Gure lanaren norainokoak ez du barne hartzen udalaren menpeko erakunde autonomoa.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2022ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko beharrezko egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

## III. IRITZIA, SALBUESPENEKIN

Nafarroako Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion esku-menak erabiliz, legezketasun-fiskalizazio bat egin du Zizur Nagusiko Udalaren 2022ko ekitaldiko langileriarri, kontratazio publikoari eta dirulaguntzei buruz.

Gure ustez, eta gure lanaren norainokoa aintzat hartuta, gure txostenaren "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalean azaldutako zertzeladen eraginengatik izan ezik, langileen, kontratazioaren eta dirulaguntzen arloan Zizur Nagusiko Udalaren 2022ko ekitaldiari dagozkion jarduera aztertuak bat datoz, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

#### **IV. IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN**

Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arrunten kontratazio publikoaz bezainbatean, gastuen 2,46 milioitan hauteman ditugu okerrak; hau da, 2022ko gastuen ehuneko 35ean, jarraian xeheki azaltzen denez:

- Egiaztatu dugu Udalak 1,45 milioiko gastua egin zuela 19 kontratistarekin, gure txostenaren 3.2. gehigarrian zehaztutako prestazioei dagozkienak, zeinak haien balio zenbatetsiaren arabera lizitatu beharko ziren. Energia- eta gas-hornidurako gastuek ehuneko 81 egiten dute.

- Bestalde, Udalak guztira 1,02 milioi ordaindu zituen gure txostenaren 3.2 gehigarrian zehazturiko bederatzitako prestaziorengatik, zeinen kontratua bere indarraldi amaierara iritsita baitzegoen alde aurretik. Ez dago arrazoi justifikaturik horren lizitaziorik berriro egin ez izateko.

Fiskalizazioa egin dugu kanpo-kontrolako erakunde publikoen funtsezko fiskalizazio-printzipioei jarraituz eta, zehazkiago, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioen gaineko ISSAI-ES 400 arauari jarraituz, bai eta kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio gida praktikoei (GPF-OCEX) jarraituz ere. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatzen da, txosteneko “Kontuen Ganberaren erantzukizunak” atalean hain zuzen ere.

Legezketasuna betetzeari buruzko gure fiskalizazioari aplikatzekoak zaizkion etika-eskakizunekin eta independentzia defendatzearen eskakizunekin bat, entitatearekiko independenteak gara, fiskalizazio publikoaren jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du gure iritzia salbuespenekin adierazteko.

#### **V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK**

Auditoretzako gai giltzarriak dira gure iritzi profesionalaren arabera munta handiena izan dutenak aztertutako aldiko legeriaren betetzeaz egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek jorratu ditugu betetzeari buruz egin dugun fiskalizazioaren testuinguruan, eta ez dugu horiei buruzko iritzi bereizirik adierazten.

Txosten honetako “Iritziaren oinarria, salbuespenekin” atalean azaldutako alderdiengatik izan ezik, erabaki dugu ez dugula gure fiskalizazioan funtsezkotzat jotako inolako gorabeheraren berririk eman behar.

#### **VI. ZIZUR NAGUSIKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA**

Zizur Nagusiko Udalaren Idazkaritzak eta Kontu-hartzaileak bermatu behar dute fiskalizatutako arloetako jarduerak bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin.

Era berean, Udalaren erantzukizuna da beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezartzea, bermatuko dutenak egindako jardueran ez dagoela ezer legez kanpokorik.

## VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburuak honako hauek dira: arrazoizko segurtasun bat lortzea Udalak 2022ko ekitaldian fiskalizatutako gaietan egindako jardueretan ez-betetze esanguratsurik ez egoteaz, eta betetzearen fiskalizazio-txosten bat egitea, gure iritzia jasotzen duena.

Zentzutasunezko ziurtasuna ziurtasun maila handia da, baina horrek ez du bermatzen fiskalizazio publikoaren jarduerari buruzko araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti harrapatuko duenik muntazko ez-betetze bat, halakorik egonez gero. Ez-betetzeak iruzur edo akatsen ondorio izan daitezke, eta materializat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta.

Kanpo kontroleko organoen fiskalizazio-jarduerari buruzko araudiari jarraituz eginiko fiskalizazio baten atal gisa, gure irizpide profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan zehar. Gainera:

- Iruzur edo akatsen ondoriozko ez-betetze muntazkoetarako arriskuak identifikatu eta baloratzeko, auditoretza-prozedurak diseinatu eta aplikatu ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta auditoretza-ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia oinarria emateko. Ez-betetze esanguratsu bat iruzurraren ondoriozkoa denean, hori ez detektatzearren arriskua handiagoa da errearen ondoriozkoa denean baino; izan ere, iruzurraren osagai izan daitezke kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, apropos eginiko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.

- Barne-kontrolari buruz ezagutza muntaduna lortzen dugu fiskalizaziorako, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzeko aldera; ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat emateko aldera.

- Ebaluatzen dugu prozedurak egokiak diren, bai eta kudeaketa-organismoak emandako informazioaren arrazoizkotasuna ere.

Erakundearen gobernu-organismoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, jorratze aldera planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta horiek egiteko unea, auditoretzaren aurkikuntza esanguratsuak eta barne-kontrolari dagokionez fiskalizazioan zehar identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri. Entitateko gobernu-organismoari jakinarazi zaizkion zertzeladen artean, zehazten dugu zein izan diren betetzearen fiskalizazioan munta handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzan giltzarri izan diren gaiak.

## VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK

Langileria, kontratazioari eta dirulaguntzei buruz eginiko betetze-fiskalizazioko lanaren emaitza gisa, Ganbera honek gomendatzen du:

- *Adjudikazio-prozedura egokiaren bidez lizitatzea eta adjudikatzea balio zenbatetsia dela eta munta txikiko kontratazioaren prozeduraren bidez izapidetu ezin diren hornidura- eta zerbitzu-kontratu guztiak.*

- *Kontratazio administratiboko prozeduretan denbora-plangintza egokia ezartzea, kontratuen gehieneko indarraldia gainditu ez dadin.*

Beste gomendio gehigarri batzuk jaso ditugu 3. gehigarrian, fiskalizazioko beste ohar eta aurkikuntza batzuei buruzkoan.

Miguel Ángel Aurrecochea Gutiérrez auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

## 1. GEHIGARRIA. ZIZUR NAGUSIKO UDALA

### 1.1 INFORMAZIO OROKORRA

Zizur Nagusia Iruñerrian kokatuta dagoen udalerrria da. 5,6 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 15.497 biztanle zeuzkan 2022ko urtarrilaren 1ean.

Udal antolamendua besteak beste organo hauek osatzen dute: Osoko Bilkurak, Tokiko Gobernu Batzarrak eta Alkatetzak. Gainera, zortzi batzorde informatibo daude.

Udalak "Musika Eskolaren Patronatua" erakunde autonomoa sortu du zerbitzu publikoak kudeatzeko.

Udalak bere kontuetan sartuta dauzka aipatu erakunde autonomoa. 2022ko ekitaldia ixtean, honako hauek ziren Udalaren datu ekonomiko nagusiak eta langile-arlokoak:

Entitatea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2022-12-31n*
Udala	15.472.057	16.436.955	99
Musika Eskolaren Patronatua	528.557	537.395	13
- Bateratzearen doitzeak	-303.049	-303.049	
<b>Bateratua, guztira</b>	<b>15.697.565</b>	<b>16.671.301</b>	<b>112</b>

\*Ez ditu barne hartzen plantillatik kanpoko langileen datuak.

2022an, Udalak 303.049 euro eman zizkion erakunde autonomoari transferentzia arrunten konzeptuan.

Udala, halaber, Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, zeinak honako zerbitzu hauek ematen baititu: uraren ziklo integralarenak, hiri-hondakin solidoen tratamenduarenak eta eskualdeko hiri-garraioarena. Mankomunitatean dituen zerbitzu hauek guztiek 398.029 euroko gastuak eragin dizkiote Udalari.

## 1.2. EGINDAKO JARDUERA

Udalak emandako informazioaren arabera, Udalak ematen dituen zerbitzu publikoak eta horiek emateko modua honako hauek dira:

Udal Zerbitzuak	Zuzeneko kudeaketa		Zeharkako kudeaketa		Mankomunitatea
	Udala	EEAA	Zerbitzu-kontratua	Errentamendua	
Argiteria publikoa	X		X		
Hilerria	X				
Udaltzaingoa	X				
Bide-garbiketa			X		
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	X				
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua	X				
Berdintasun Zerbitzua	X				
Tokiko enplegu eta garapen zerbitzuak	X				
Gizarte enplegu babestua	X				
0-3 urteko haur-eskolak	X		X		
Ludoteka	X		X		
Hirigintza	X		X		
Lorategiak	X		X		
Hiri-hondakinak					X
Uraren ziklo integrala					X
Garraio publikoa					X
Liburutegia	X				
Kultura	X				
Kultur etxea	X		X		
Taberna-kafetegiaren kudeaketa Kultur etxea				X	
Kirolak	X				
Kirol instalazioak	X		X		
Kirol instalazioetako taberna-jatetxearen kudeaketa				X	
Kirol jarduerak	X		X		
Hiri-kanpamenduak	X		X		
Gazteendako lokala-gaztetxea	X		X		
Musika Eskola		X			



## 2. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Udalari aplikatzekoa zaion arau-esparru nagusia honako hau da:

### Estatuko araudia

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa.

### Foru araudia

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.
- Aurrekontua betearazteko oinarriak.
- Ordenantzak.

## 3. GEHIGARRIA. BETETZEAREN FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere.

Orobat gehitu ditugu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

### 3.1. LANGILEAK

Langile-gastuak 5,17 milioikoak izan ziren, eta ekitaldian sortutako gastu guztien % 31 egin zuten. Honako taulan ematen da gastu horren xehakapena:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2022)
Hautetsien lansariak	45.354
Behin-behineko langileen ordainsariak	114.065
Funtzionarioen oinarritzko lansariak	1.714.798
Funtzionarioen lansari osagarriak	749.112
Aldi baterako lan-kontratudun finkoen ordainsariak	110.727
Aldi baterako lan-kontratudunen lansariak	1.034.630
Gizarte-kuotak	1.325.552
Gizarte-prestazioak	55.875
Familia-osagarria	23.584
<b>Guztira</b>	<b>5.173.697</b>

## Plantilla organikoa

2022ko plantilla organikoaren behin betiko onespena 2022ko 79. Nafarroako Aldizkari Ofizialean (aurrerantzean NAO), apirilaren 25ekoan, argitaratu zen. Dena den, gerora hiru aldaketa egin dira. Bestalde, 2022ko abenduaren 31ko langileria-zerrenda onetsi egin zen, eta 2023ko 51. NAO, martxoaren 13koan, argitaratu zen.

Lanpostuak, 2022ko ekitaldia ixtean indarrean zegoen plantillaren arabera, honako hauek dira:

Sailkapena	2022
Langile funtzionarioak	98
Lan-kontratadun langileak	9
Behin-behineko langileak	2
<b>Guztira</b>	<b>109</b>

Plantillako lanpostuetatik, ehuneko 90 funtzionario-araubidekoak dira, ehuneko zortzi lan-araubidekoak, eta ehuneko bi behin-behinekoak.

Honako hau zen lanpostuen egoera 2022ko abenduaren 31n:

Langileria	2022
Plantillako lanpostuak	109
Beteta	66
Hutsik	43
Lanpostu hutsen % lanpostu guztien gainean	% 39
Betetako lanpostu hutsak	33
Bete diren lanpostu hutsak (%)	% 77
Bete gabeko lanpostu hutsak	10
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	% 23

2022an, plantillako lanpostu guztien ehuneko 39 hutsik zeuden; horietatik, ehuneko 77 aldi baterako zeuden beteta, eta gainerakoak, ehuneko 23, artean bete gabe.

2022ko abenduaren 31n, behin-behinekotasunaren indizea, betetako plaza hutsen eta modu finkoan edo aldi baterako betetako plantilla-plaza guztien arteko zatidura gisa kalkulatuta, ehuneko 33koa zen.

## Egonkortzearen azterketa

Enplegu publikoaren egonkortze prozesua aztertu dugu aintzat harturik zer betekizun eta epe ezartzen diren uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legean, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoan. Udalak, 2022ko urriaren 27ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez, partzialki atxiki zen foru lege honen II. tituluaren aplikaziora.

Honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- Udalak egonkortze-EEP bat onetsi zuen, eta 2022ko maiatzaren 26ko NAO argitaratu zen. Beraz, araudian ezarritako 2022ko ekainaren 1eko epemuga baino lehen. EEP horri bi aldaketa egin zitzaizkion, eta NAO argitaratu ziren 2022ko urrian eta abenduan, hurrenez hurren. EEP horri buruz, hauxe aipatzen dugu:

- Guztira, 19 lanpostu dira aipatu arau-esparruko xedapenek ukitutakoak; horietatik 16 me-rezimendu-lehiaketaren hautapen-sistema baliatu da, eta hirutan, berriz, oposizio-lehiaketa.
- Lagin batean egiaztatu dugu ezen sartuta dauden lanpostuek bete egiten dituztela araudian ezarritako baldintzak.

- Lanpostu horiek betetzeko deialdiak 2022ko abenduaren 12ko NAOn argitaratu ziren, legeak ezarritakoarekin bat, epemugatzat 2022ko abenduaren 31 zehazten baitzuen.

Txosten hau egin den egunean, oraindik ez dira hasi oposizio-lehiaketa osatzen duten egonkorte-deialdiak. Merezimendu-lehiaketa osatzen duten deialdiei dagokienez, prozesua aurreratuta dago, eta izendapenak formalizatzea baino ez da falta.

Hala ere, araudi berriarekin hasitako egonkortze prozesua ez da amaitu, deialdi guztiak ebazteko epea 2024ko abenduaren 31n amaituko baita. Ondorioz, une honetan ezin da baloratu lege ezarritako helburua bete den, hau da, behin-behinekotasuna % 8ra murriztu den egiturazko lanpostuetan.

*Gomendatzen dugu langileak hautatzeko arribideko prozedurak izapidetzen jarraitzea, enplegu publikoa egonkortzeko aparteko prozesuaren esparruan, 2024ko abenduaren 31 baino lehen amaitu daitezen.*

### Langileria gastuen egiaztapenak

2022ko urrian 85 pertsonarentzat 204.430 euroko zenbatekoarekin sortzapena izan zuen nominako ordain-kontzeptuen lagin bat aztertu dugu.<sup>1</sup> Zenbateko horrek aztertutako hilabeteko nominaren guztizkoaren ehuneko 68 egiten du.

Aurreko azterketan egiaztatu dugu ordainsari-kontzeptu guztiak bat datozela plantilla organikoan aurreikusitakoekin, eta pertsona bakoitzari zuzen ordaindu zaizkiola betetzen duen lanpostuaren eta inguruabarren arabera.

### 3.2 UDALAREN KONTRATAZIO PUBLIKOA

2022ko ekitaldiko ondasun eta zerbitzuengatikoko gastu arruntak 6,93 milioikoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 42 egiten dute. Hurrengo taulan ageri dira xehetasunak:

Artikula	Aitortutako betebeharrak (2022)
Errentamenduak eta kanonak.	9.610
Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa.	378.439
Materiala, hornidurak eta bestelakoak.	6.319.861
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak.	138.494
Administrazio publikoek eta beste entitate publiko batzuek eginiko lanak.	86.503
<b>Guztira</b>	<b>6.932.907</b>

<sup>1</sup> Honako kontzeptu hauek aztertu ditugu: oinarritzko soldata, bateraezintasun-osagarria, eskusibotasun-osagarria, lanpostuarena, espezifikoa, maila-osagarria, lanaldiaren luzapenaren osagarria, arrisku bereziarena, txandakotasuna, izendapen askea, gradua eta antzintasuna.

2022ko inbertsio-gastuek 3,48 milioi egin zuten. Kopuru horrek gastu guztien ehuneko 21 egiten du, jarraian azaltzen den moduan banatua:

Artikulua	Aitortutako betebeharrak (2022)
Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetako inbertsio berriak	786.110
Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunak lehengoratzeko inbertsioak	145.193
Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari lotutako inbertsio berria	2.137.963
Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari lotutako lehengoratzeko inbertsioak	377.183
Ezin ukituzko inbertsioetan egindako gastuak	37.820
<b>Guztira</b>	<b>3.484.269</b>

Gure lana munta txikiko kontratazioa eta kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak aztertea izan da, bi gastu-kapituluetan.

Fiskalizazio-lagina hautatzeko, lehenik, kontratista guztien kopurua eta haien gastua bildu dugu, hala 2. kapitulurako nola 6. kapitulurako. Honako informazio hau lortu dugu:

Kapitulua	Kontratista-kop.			Gastua (2022)	
2. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	Lizitazio-prozedurarekin	Munta txikiko araubide bereziarekin	Lizitazio-prozedurarekin	Munta txikiko araubide bereziarekin	
	19	463	3.397.125	3.513.145	
6. Inbertsioetako gastuak	11	89	2.624.369	859.900	

Munta txikiko kontratazio araubide bereziaren bidezko gastua egin zuten kontratista guztien artean honako lagin hau hautatu dugu:

Kapitulua	Kontratista-kop.	Gastua (2022)
2. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	37	2.635.989
6. Inbertsioetako gastuak	11	382.352

2. kapituluaren kasuan, hautatutako laginak munta txikiko kontratazio araubide bereziaren gastuaren ehuneko 75 egiten du, eta 6. kapituluari dagokionez, ehuneko 44.

Aztertu ondoren, honako hauek ondorioztatu ditugu:

### Munta txikiko kontratazioa

- 2. kapitulua: ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak

Egiaztatu dugu guztira 1,45 milioiko gastua jotzen duten prestazioak daudela, eta, aztertutako kontratuetako bakoitzaren balio zenbatetsiaren arabera, modu desegokian izapidetu dira munta txikiko kontratazio araubide bereziaren bidez. Hauexek dira:

Prestazioaren deskribapena	Faktura-kopuruak	2022ko gastua (BEZa barne)
Energia elektrikoa	182	876.152
Gasa	124	300.883
Aholkularitza eta hirigintzako kontsultak	12	34.792
Telefonia finkoa/Internet	168	32.897
Aldizkaria editatzea	17	27.632
Suteetarako segurtasun-elementuak	63	24.394
Garbiketa eta txukuntzerako materiala	79	21.278
Postontzietako banaketa	35	18.314
Igerilekuetako ura tratatzeko produktuak	5	15.544
Galdaren mantentze-lanak	13	14.793
Argindarraren hornidura	72	14.520
Legelari-laguntza bide judizialean	20	13.255
Jantziak	19	12.286
Telefonia mugikorra	145	11.453
Erregai hartzea	30	10.293
Intsektu-hiltzea eta arratoi-hiltzea	13	10.059
Hirigintzako aholkularitza (irekitze-lizentziak, obra txikiak...)	4	8.152
Aholkularitza juridikoa	4	6.655
<b>Guztira</b>		<b>1.453.354</b>

- 6. kapitulua. Inbertsio-gastuak

Kasu honetan, ikusi dugu azterturiko gastua egokiro izapidetua izan zela, eta ez zuela lizitazio-prozedura baten beharrik.

- Kontratazio hauek argitaratzea

Udalak urtero argitaratzen du informazio hori. Adierazten dugunez, kontratu-araudiak ezartzen du hiru hilean behin egin behar dela, eta modu metatuan enpresa edo profesional bakoitzeko.

### Kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak

Udalak guztira 1,02 milioi ordaindu zituen kontratua epemugaratua zeukaten bederatzita prestazioengatik, honako xehetasun hauekin:

Kontratuaren xedea	2022an ordaindutako gastua	Kontratuaren amaieratik 2022-12-31ra arte metatutako gastua	Kontratuaren amaiera-data
Zizur Nagusiko kirol instalazio publikoen funtzionamenduaren kudeaketa	366.481	366.481	2022/05/08
Zizur Nagusiko kultur etxearen kudeaketa	184.716	184.716	2021/12/31
Erreniega ikastetxe publikoaren garbiketa	126.545	422.514	2019/04/30
"Camino de Santiago" ikastetxe publikoaren garbiketa	126.053	248.485	2020/12/31
"Catalina de Foix" ikastetxe publikoaren garbiketa	122.591	244.005	2020/12/31
Udaletxeko garbiketa eta atezaintza	47.205	47.205	2022/05/11
Musika Eskolaren garbiketa	19.663	62.013	2019/07/10
Argiteria publikoaren kudeaketa	16.175	16.175	2021/12/31
Udaltzaingoaren bulegoen garbiketa	10.342	28.440	2020/04/01
<b>GuztiraG</b>	<b>1.019.771</b>	<b>1.620.034</b>	

Adierazi behar dugu, txosten hau idazteko garaian, 2023an, egoera horretan dauden bederatzik kontratuetatik sei kontratu jada adjudikatu direla, bi hutsik geratu direla, eta bat lizitatzeko dagoela.

Udalaren Kontu-hartzaitzak zortzi eragozpen-ohar aurkeztu ditu, eta horietatik sei aurreko kontratuaren indarraldia amaitu arren zerbitzua ematen jarraitzeari buruzkoak dira. Beste bi fakturak ordaintzeari buruzkoak dira, jasota egon gabe fakturatutako zerbitzuaren alde aurreko lizitazioa eta adjudikazioa egin izana. Era berean, adierazten dugu ezen martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 246.3. artikuluan ezarritakoa betetze aldera Kontu-hartzaitzak Osoko Bilkurari urtero aurkezten dion txostenean jakitera ematen dela egoera horiek erregularizatzeko beharra.

### 3.3. TRANSFERENTZIA ARRUNTETAKO ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIETAKO GASTUAK

2022an, transferentzia-gastuak 0,84 milioikoak izan ziren; kopuru horrek gastu guztien ehuneko bost egiten du, honela zehazturik:

	Transferentzia arruntak	Kapital-transferentziak
Erakunde autonomoak	303.049	
Udalak	400	
Tradiziozko elkarteak	10.966	
Beste dirulaguntza batzuk enpresa pribatuei	600	
Familiak	102.354	
Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	286.111	
Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	53.574	
Beste transferentzia batzuk		83.152
<b>Guztira</b>	<b>757.055</b>	<b>83.152</b>

Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa eta zuzeneko emakidaren araubidearen bidezko dirulaguntzak aztertu ditugu.

#### **Dirulaguntzen plan estrategikoa**

Zizur Nagusiko Udalak 2020-2022 aldirako dirulaguntzen plan estrategiko bat du, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Udalaren Osoko Bilkurak 2017ko ekainean onetsitako Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra betez.

**Dirulaguntzen lagin baten azterketa**

Udalak emandako informazioaren arabera, 58.440 euro eman zizkien zuzeneko ematearen araubidearen bidez 16 onuraduni, jarraian zehazten denez:

Dirulaguntza	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak (2022)
Zizur Nagusiko banda	25.000	20.000
Galtzagorri txaranga	2.691	2.070
Zizurko gaita-jotzaileak	4.998	3.845
Zizur Nagusiko joaldunak elkarte	1.131	870
Zizur Nagusiko auroroen elkargoa	1.287	990
Zizur Nagusiko erraldoien konpartsaren elkarte	2.675	2.675
Ilunabarra txistulariak	2.613	2.010
Zizurko trikitalariak elkarte	1.781	1.370
Delirium txaranga	2.242	1.725
Zizur Nagusiko rondalla elkarte	780	600
Zizur Nagusiko Errege Magoen Kabalgata elkarte	9.465	9.465
Olentzero elkarte	4.400	4.400
Euskaraz kooperatiba elkarte	600	600
Nafarroa Oinez fundazioa	560	560
Sortzen gurasoak	560	560
Erretiratuen kluba	8.375	6.700
<b>Dirulaguntza</b>	<b>69.159</b>	<b>58.440</b>

Honako lagin hau aztertu dugu:

Onuraduna	Aitortutako betebeharrak (2022)
Zizur Nagusiko banda	20.000
Zizurko gaita-jotzaileak	3.845
Olentzero elkarte	4.400
<b>Guztira</b>	<b>28.245</b>

Egindako azterketan egiaztatu dugu zuzeneko emakidaren araubidezko dirulaguntzen ematea eta kudeaketa aplikatzekoa den esparruaren arabera egin dela; dena den, honako gabezia hau nabarmentzen dugu:

- Dirulaguntza Zizur Nagusiko bandari eta Zizurko gaita-jotzaileei. 2020ko ekitaldian, entitate horiekin aurretik formalizatutako hitzarmenak eguneratu ziren, eta horiei atxiki zitzaizkien udal-ordenantza betetzeari buruzko derrigorrezko txosten juridikoa. Txosten juridiko hori ez dago jasota 2022an aztertu ditugun hitzarmenetan, Udalaren ustez ez baitago aldaketarik ondoren egindako hitzarmenetan ezarritako zehaztapenetan, 2020ko ekitaldikoekin alderatuta.

Ganbera honen ustez, aurrekontuetan onesten diren dirulaguntza izendunen indarraldia urte batekoa da; beraz, dirulaguntza horiek bideratzeko hitzarmen horien indarraldia ere urte batekoa da. Ondorioz, ekitaldi bakoitzean derrigorrezko txosten juridikoa xertatu beharko litzateke.

- Dirulaguntza Olentzero elkarteari. Espedientean ez zeuden jasota aurkeztutako gastuen zerranda egiaztatzen zuten fakturak edo frogagiriak, ezta ordenantzan eskatutako gainerako txostenak ere. Ganbera honek eskatuta, Udalak fakturak eskatu dizkio onuradunari. Behin aztertuta, emaitza zuzena da.

Horren guztiaren ondorioz, gomendio hauek egiten ditugu:

- *Espedientean sartzea dirulaguntzen ordenantza orokorrean aurreikusitako txosten guztiak.*
- *Frogagiriak eskatzea, ordenantzan aurreikusitakoarekin bat, modu fede-emaille batean egiaztatzeko entitate onuradunek aurkeztu dituzten gastuen eta diru-sarreraren zerranda.*

### 3.4 NEXT GENERATION FUNTSAK

Europar Batasunak estatu kideen multzoari baliabideak bideratzea erabaki zuen, Next Generation funtsen bitartez, COVID-19aren pandemiaren eragina samurtzeko eta ekonomiaren suspertze-ari bultzada emateko.

2020-2022ko aldian, Udala funts mota horien hartzailea izan da, “Moves II: mugikortasun efiziente eta jasangarrirako pizgarriak” eta “Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen modernizazio digitala” proiektuetarako. Honako hauek dira exekuzio-datuak:

Gastuak	2021	2022	Guz-tira
Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzea (Moves II)	1.642		1.642
Energia alternatiboko ibilgailua erostea (Moves II)	17.900		17.900
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen modernizazio digitala	639	22.558	23.198

Diru-sarrerak	2021	2022	Guz-tira
Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzea (Moves II)	657		657
Energia alternatiboko ibilgailua erostea (Moves II)		1.900	1.900
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen modernizazio digitala		19.148	19.148



**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

**Jon Gondán Cabrera jauna, Zizur Nagusiko Udaleko alkate udalburua,** Kontuen Ganberaren aurrean agertzen da, eta zuzenbidean egokien den moduan, hauxe DIO:

“Zizur Nagusiko Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publiko eta dirulaguntzei” buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostena onesten duen Kontuen Ganberaren lehendakariaren ebazpenari dagokionez 2024ko urtarrilaren 17an Udal honetara iritsitako helarazpenari erantzunez, honako alegazio hauek aurkezten dira horretarako emandako epearen barruan:

1.- Munta txikiko kontratazioa- 2. kapitulua: ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak:

Energia- eta gas-hornidurei dagokienez munta txikiko kontratazio araubide bereziaren bidez modu desegokian kontratatutako gastuak guztizkoaren % 81 egiten du, txostenean ageri den moduan. Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioko Kontratazio Zentralaren bidez kontratatze aukera aztertzea aurreikusten da, Udalak ez baitu lizitazio hori egiteko teknikari nahikorik eta egokirik.

2.- Kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak:

Apartatu honetan jasota utzi nahi da Zizur Nagusiko kirol instalazio publikoen funtzionamenduaren kudeaketari eta Kultur Etxearen Kudeaketari dagozkion kontratuak ezin izan zirela lizitatu haiek amaitu aurretik, une hartan hitzarmen kolektiboak negoziatzen ari zirelako; beraz, kontratu horien prezioa ia osorik langileria-gastuei dagokienez, ezinezkoa zitzaigun horren balio zenbatetsia ezagutzea. Ondoren, behin hitzarmen kolektiboak onetsita, lizitatu egin ziren, baina, hala ere, hutsik geratu ziren.

Zizur Nagusian, 2024ko urtarrilaren 23an

Alkatea: Jon Gondán Cabrera

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA**

Eskerrak ematen dizkiogu Zizur Nagusiko Udaleko alkateari aurkeztutako alegazioengatik. Horiek txosten honetan jasotzen dira, Ganbera honek emandako erantzunarekin batera.

Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio, zeina behin betiko txosten egiten baita, haiei irizten zaienez ezen egindako fiskalizazioaren azalpen bat direla eta ez dutela horren edukia aldatzen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador



